

## ESKUBIDEAK ERABILTZEKO INPRIMAKIA

Zure datu pertsonalekin lotutako eskubideak  
erabiltzeko eskaera

### 1. Informazioaren titularraren eta/edo bere ordezkariaren datuak

Izen-abizenak	
Nortasuna egiaztatzen duen agiriaren zenbakia	
Posta-helbidea	
Helbide elektronikoa	
Telefono-zenbakia*	

### 2. Ordezkari bidez jardunez gero, sartu bere datuak

Izen-abizenak	
Nortasuna egiaztatzen duen agiriaren zenbakia	
Posta-helbidea	
Helbide elektronikoa	
Telefono-zenbakia*	

*\*Ikur honekin markatutako eremua ez da nahitaezkoa eskabidea egiteko. Eremu hori betetzeko eskatzen zaizu eskatutako eskubideen erabileraren harira zalantzak sor ditzakeen alderdiren bat badago, zurekin harremanetan jartzeko.*

### 3. Erabili nahi den eskubidea

ALOKABIDEn eska diezaiokezu honako eskubide hauek erabiltzeko: datuak atzitzea, zuzentzea, ezabatzea, aurkaratzea, tratamendua mugatzea, datuak eramatea (erabaki automatizatu baten xede ez bada), baimena kentzea eta zure datuen nazioarteko transferentzia batean aplikatzekoak diren bermeei buruzko informazioa jasotzea. Horretarako, jarraian dagoen zerrenda ekarri dizugu, zer eskubide erabili nahi duzun adieraz dezazun.

Adierazi zein eskubide erabili nahi duzun zerrenda zabalgarri honetan:

Atzitzeko eskubidea. ALOKABIDE zure datu pertsonalak tratatzen ari den baieztatzeko eskubidea eta, hala bada, datu pertsonalak eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 15. artikulua ezartzen duen informazioa atzitzeko eskubidea. Markatu eskatutakoa:

Tratamenduaren xede diren datu pertsonalen kopia bat.

Tratamenduaren helburuak.

Tratatzen diren datu pertsonalen kategoriak.

Datu pertsonalak jakinarazi zaizkien ala jakinaraziko zaizkien hartzaileak edo hartzaileen kategoriak, bereziki, hirugarren herrialdeetako hartzaileak ala nazioarteko erakundeak.

Datu pertsonalak gordetzeko epea edo irizpideak.

Interesdunak arduradunari honako eskubide hauek eskatzea: datu pertsonalak zuzentzea edo ezabatzea, bere datu pertsonalen tratamendua mugatzea edo tratamenduaren aurka egitea.

Kontrol Agintaritzaren aurrean erreklamazioa aurkezteko eskubidea.

Datu pertsonalak zuzenean pertsonak eman ez dituenean, jatorriari buruzko edozein informazio eskuragarri.

Erabaki automatizatuak egotea, profilak egitea barne, eta, halako kasuetan, gutxienez informazio adierazgarria aplikatutako logikari, garrantziari eta interesdunarentzat tratamenduak izango dituen ondoreei buruz.

Berre egokiak transferentzien kasuan, datu pertsonalak Europako Esparru Ekonomikotik kanpo dagoen nazioarteko erakunde bati edo hirugarren herrialde bati transferitzen bazaizkio.

Zuzentzeko eskubidea. Bidegabe luzatu gabe, norbanakoaren datu pertsonal zehaztugabeak zuzentzeko eskubidea.

Ezabatzeko eskubidea. Bidegabe luzatu gabe, norbanakoaren datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea, honako inguruabarren bat gertatzen denean: Markatu dagokiona:

Zure datu pertsonalak bildu ziren edo bestelako moduan tratatu ziren helburuak betetzeko dagoeneko beharrezkoak ez badira.

Datu pertsonalen tratamendua arduradunari emandako baimenean oinarritu bada eta baimena kentzen badiuzu, baldin eta tratamendua legezkatzen duen bestelako arrazoi batean funtsatzen ez bada.

Zure datu pertsonalak tratatzearen aurka egin baduzu kontra egiteko eskubidea erabiliz honako inguruabar hauetan:

Arduradunaren tratamendua interes legitimoan oinarritzen zen edo interes publikoko eginkizun bat betetzeko zen, eta zure datuen tratamendua legitimatzeko ez da bestelako arrazoirik nagusitu.

Zure datu pertsonalekin zuzeneko marketina egitearen aurka zaude, marketinarekin lotutako profilak egitea barne.

Datu pertsonalak legez kontra tratatu badira.

Zure datu pertsonalak ezabatu behar badira Europako zuzenbidean edo estatu kideetako zuzenbidean dagoen legezko eskakizun bat betetzeko, baldin eta tratamenduaren arduradunari badagokio.

Datu pertsonalak 8. artikuluko 1. apartatuan (adingabeen datuak tratatzeari aplikatu behar zaizkien baldintzak informazio-gizartearen zerbitzuei dagokienez) aipatzen diren informazio-gizartearen zerbitzu-eskaintzaren gainean lortu badira.

Tratamendua mugatzeko eskubidea. Interesdunak eskubidea du datuen tratamendua mugatzeko. Markatu dagokiona:

Zure datu pertsonalen zehaztasuna aurkaratzen duzunean arduradunak egiaztatu ahal dituen epearen barruan.

Zure datu pertsonalak tratatzearen aurka egin duzunean, nahiz eta arduradunak interes legitimoan oinarrituta edo interes publikoko zeregin bat betetzeko tratatu. Hala egin daiteke arduradunak egiaztatzen duen bitartean azkeneko arrazoi horiek nagusi diren zureen gainean.

Datuak eramateko eskubidea. Zuk eskubidea izango duzu eman dizkiguzun datu pertsonalak formatu egituratu batean jasotzeko, eta formatu hori erabilera arruntekoa eta irakurketa mekanikokoa izango da. Horrez gain, beste tratamendu-arduradun bati helarazteko aukera izango duzu, ALOKABIDEK eragotzi gabe. Halaber, eskubidea izango duzu zuzenean tratamenduaren beste arduradun bati bidaltzeko eskatzeko, teknikoki posible denean. Hala ere, zure datu pertsonalak zure baimenean oinarrituta tratatzen ari garenean edo zure datu pertsonalak zurekin egindako kontratu batean oinarrituta tratatzen ari garenean eta tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten denean soilik izango duzu eskubide hori.

Aurkaratzeko eskubidea. Zure datu pertsonalak erabiltzeari uzteko eskatzeko eskubidea, adibidez, ditugun datu pertsonalak okerrak direla edo dagoeneko erabili behar ez ditugula uste baduzu. Zure datuak marketin zuzenerako erabiltzen baditugu, zuk tratamendu hori aurkaratzeko eskubidea duzu, baita profilak egitearen aurka ere, horrek marketin zuzenarekin zerikusia duen neurrian. Horretarako, aurkaratze-eskubide hori balia dezakezu, edo, bestela, helburu komertziala duten marketin-mezuak ez bidaltzeko eska dezakezu, edozein helbide elektronikotako harpidetza bertan behera uzteko edo baja emateko aukeraren bidez. Zure egoera zehatzarekin zerikusia duten arrazoiengatik, edozein unetan balia dezakezu aurkaratzeko eskubidea, zure datu pertsonalen edozein tratamenduren aurrean, baldin eta tratamendu horren lege-oinarria gure "interes legitimoak" badira, eta uste baduzu zure eskubideak gureen gainetik daudela. Hala ere, ALOKABIDEK zure datu pertsonalak tratatzen jarraitu ahal izango du, baldin eta egiaztatzen bada ezinbesteko interes legitimoak ditugula edo ALOKABIDEK zure datuak tratatu behar dituela erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo defendatzeko.

Datu pertsonalen tratamenduan oinarritutako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea, profilak egitea barne. ALOKABIDEK zure datuen tratamendu automatizatuan soilik oinarrituta eta gizakiaren esku-hartzerik gabe hartzen duen erabaki bati lotuta egotearen aurka egon zaitezke. Hala ere, aurkaratze eskubide hori izango duzu soilik erabaki horrek bere baitan legezko ondorioak dituzenean edo beste modu nabarmen batean eragiten dizunean. Deskribatutako motako erabaki bati lotuta egon bazara eta ados ez bazaude, ALOKABIDEkin harremanetan jar zaitezke eta erabakia berrius dezagula eskatu, giza esku-hartzea egiteko, zure ikuspuntua adierazteko edo erabaki hori edozein modutan aurkaratzeko. Ez duzu aurkaratzeko eskubideri izango erabakia automatizatua denean: • Beharrezkoa bada zurekin kontratu bat egiteko edo gauzatzeko, • Legeak baimenduta badago eta zure eskubideak eta askatasunak babesteko neurri egokiak badaude, edo • Zure adostasun esplizituan oinarritzen bada.

Mesedez, adierazi zure eskaerari ahalik eta modu egokienean erantzun ahal izateko beharrezkotzat edo garrantzitsutzat jotzen dituzun xehetasun guztiak.

Inprimakia behar bezala beteta bidali beharko duzu, eta ordenamendu juridikoaren arabera baliozkoa den nortasun-agiri ofizialaren fotokopia bat erantsi. Hirugarren pertsona baten ordezkari gisa jarduten baduzu, zure nortasun-agiri ofiziala eta interesdunaren ordezkaria zarela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dituzu.

Erantzuna gehienez ere hogeita hamar eguneko epean jakinaraziko zaizu, eta beste bi hilabetez luzatu ahal izango da, eskaera konplexua bada edo ALOKABIDEk eskaera askori erantzun behar badie.

Adierazi erantzuna nola jaso nahi duzun:

Helbide elektronikoa

Posta

Data

**DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA:**

**Arduraduna:** ALOKABIDE

**Xedea:** Kudeatzea

**Eskubideak eta informazio gehigarria:** Puede acceder a información adicional sobre el tratamiento de sus datos personales en la política de privacidad incluida en el sitio web [www.alokabide.euskadi.eus](http://www.alokabide.euskadi.eus).